

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Zangozako Udalarekin uholdeen aurreko ebakuazioetan jarduteko protokolo orokorra onartu da

*Helburua da biztanleria ebakutzeko beharrezko jarduerak koordinatzea, bereziki ikastetxeetan edo adinekoen egoitzetan*

Asteazkena, 2018.eko azaroak 7

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran Zangozako Udalarekin jarduteko protokolo orokorra sinatzea onartu du, uholdeen kasuan, ikuspegi teknikotik erreparatuta, biztanleria oro har eta, bereziki, eraikin zaugarrietan egoten dena, hots, ikastetxeak edo adinekoen egoitzak, ebakutzeko beharrezko jarduerak koordinatzearen.

Nafarroako lurraldean uholdeen arriskuen aurreko Larrialdietako Plan Berezia 2002an onartu zuten eta 2011n aldatu. Plan horretan, Zangoza uholdeen 3. motako arrisku-zona bezala katalogatzen da; hau da, handiena. Hori dela-eta, Udala uholdeen arriskuen aurrean Jarduteko Plana idatzi beharrean aurkitzen da.

Antzeko aurreikuspena jasotzen da uholdeen arriskuaren aurrean babes zibilak egindako plangintzako oinarritzko Gidalerroan, 1995ean onartutakoan.

2014. urtean, Zangozako Udalak uholdeen arriskuen aurreko Udal Jarduera Plana onartu zuen, Nafarroako Babes Zibileko Batzordeak homologatua urte hartako irailaren 4an.

Baina aipatu Jarduera Plan horretan ez ziren zehaztu eraikin zaugarrietan, hots, ikastetxeetan eta adinekoen egoitzetan, egoten den biztanleriak jarraitu beharreko jarduera espezifikoak, ezta larrialdiko egoera baten aurrean biztanleek egin beharreko jarduerak ere.

Beraz, jarduera horiek Zangozako Udalak agindutako dokumentu teknikoan jaso ondoren, Nafarroako Gobernuak bi administrazioen arteko jardueren protokolo orokorra onartu du, aipatu moduan, biztanleria ebakatu ahal izateko beharrezko jarduerak koordinatze aldera.